

I. ERANSKINA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, ARABAKO FORU ALDUNDIAK IRUZURAREN AURKAKO BORROKAN ETA PREBENTZIOAN DAUKAN KONPROMISOARENA, ALDUNDIAREN ERANTZUKIZUN ERAGIKETEN TESTUINGURUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014-2020RAKO EGEF PROGRAMA OPERATIBOAREN BAITAN

Arabako Foru Aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020rako EGEF programa operatiboan hainbat eragiketa egin behar ditu.

Aldi horretako xede nagusietatik bat da indartzea, haren eskumen eremuan, iruzurraren aurkako politika, eginkizunak bete behar dituztenean. Hortaz, Arabako Foru Aldundiak adierazi nahi du arau juridiko, etiko eta moralen betetze mailarik handiena erdiesteko konpromisoa daukala eta atxikimendua daukala osotasunaren, objektibotasunaren eta zintzotasunaren printzipiorik zorrotzenekiko, halako moldez non nahi baitu bere jardura edozein eratako iruzurraren eta ustelkeriaren aurkakotzat jo dezatela berarekin zerikusia duten eragile guztiek. Erakundeko langile guztiek, baita zuzendaritza taldeko kide guztiek ere, bere gain hartzen dute konpromiso hori eta bat egiten dute harekin.

Halaber, Arabako Foru Aldundia osatzen duten enplegatu publikoek dauzkaten betekizunen artean dago interes orokorra zaintzea, ordenamendu juridikoa beteta eta hari helduta, eta printzipio hauekin bat etorritik jardutea: objektibotasuna, zuzentasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoarekiko ardura, gardentasuna, eredu garritasuna, laztasuna, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko errespetua.

Politika horren xedea da erakunde barruan kultura bat sustatzea iruzur egiteko gogoak kentzen duena eta errazten duena iruzurrari aurre hartu eta hura antzematea, eta kasu horiek kudeatzeko, prozedura eraginkorrak garatzea sustatuko da. Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak prozedura bat dauka, besteak beste, interes gatazken egoerak adierazteko.

Horretarako, Arabako Foru Aldundiak Iruzurraren Ebaluazio eta Arrisku Kudeaketa Taldea (IEAKT) dauka, eta iruzurraren aurkako politika berrikusi eta eguneratzen du aldiro; baita emaitzen jarraipena egin ere. Horrez gain, prozesuen arduradun eta kudeatzaileen laguntza izaten du, segurtatzeko badela barruko kontrol sistema egoki bat, haren erantzukizun arloko barruan, eta bermatzeko, hala badagokio, arduraz jokatu dela neurri zuzentzaileak inplementatzean.

Arabako Foru Aldundiak egiaztapen eta kontrol lanak egiten ditu aurre faseetan, eta eragiketa bakoitzaren informazio zehatza erregistratzen du bermatzeko gastua fidagarria eta erregularra dela.

Arabako Foru Aldundiak martxan jarri ditu iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionatuak, aurreko ekitaldietan lortutako esperientzia eta berriki berriaz egin den iruzur arriskuaren ebaluazioan oinarrituak. Gainera, baditu prozedurak, salatzeko antzeman litezkeen irregulartasunak edo iruzur susmoak, bai jakinarazpenetarako barruko bideen bidez bai zuzenean Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegora (OLAF) jota. Txosten guztiak konfidentzialtasunik zorrotzenarekin eta arlo hau arautzen duten arauen arabera tratatuko dira.

Azken finean, Arabako Foru Aldundiak iruzurrarekiko eta ustelkeriarekiko zero tolerantziako politika dauka, eta kontrol sistema indartsu bat ezarri du, bereziki diseinatu dena ahal dela iruzur egintzei aurre hartu eta haiek antzemateko, eta haien eragina zuzentzeko, baldin eta halakorik egiten bada.